

Izen abizena
helbidea
tel
mail

Enpresa
Helbidea

Gutun gomendatua, jasotze-abisuarekin/mail

Gaia : Nire ordaindutako opor eskubideen erregularizazioa

Jaun, anderea (Nagusia edo dena delakoa)

2023ko irailaren 13ko epai batzuen bidez (22-17.340tik 22-17.342ra, 22-17.638, 22-10.529, 22-11.106 eta 22-14.043 errekursoak), Kasazio Auzitegiak Europar Batasuneko zuzenbidearekin bat eman du Frantziako zuzenbida, izan ere, hogeitun urte dira Frantziako zuzenbidea okerra dela. Zehazki, honako hau ebatzi du :

1/ Gaixotasun baten ondorioz, lanbide jatorrikoa izan ala ez, lan-harremana etenda duten LANGILE GUZTIEK, ordaindutako oporrak eskuratzeko eskubidea ukaten segituko dute.

Horrek ordaindutako oporrendako balio du, legezkoak edo konbentzionalak izan, adibidez haur edo heldu helbarrituendako zentroetako langileentzat diren aparteko opor ordainduak. Aldiz, erabaki hauek ez dituzte ordainik gabeko oporrak kontutan hartzen, urte sabatikoa bezala.

2/ Haurrak zaintzeko eszedentzia aintzinetik eskuratutako opor ordainduak gibelatzen ahal dira, urteko opor ordainduen epea pasa bada ere. Guraso bihurtzeak ezin du eskubideak galtzea ondorioztatu.

3/ Gaixotasun edo lan-istripuagatiko opor ordainduak ez dira urtebetera mugatzen. Lan-harremana lan geldialdi baten ondorioz etenda duen langileak, ordaindutako opor eskubideak eskuratzeko jarraituko du, iraupen-mugarik gabe.

4/ Preskripzio-epea enpresaburuak langileari oporrak hartzeko aukera ematen dion unetik aurrera hasiko da. Nagusiaren partetik informazio argi ezean, epea ez da hasi, kronometroa zerotan gelditzen da !

Hala ere, gaur egun ere, Frantziak ez ditu europar lege guztiak betetzen, nahiz eta derrigorrezkoak izan. Kasu honetan, Europar Batasuneko zuzenbidea Frantziako zuzenbideari inposatzen zaio. Beraz, enplegatzaile orok 2003/88/EE Zuzentaraua eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia aplikatu behar ditu.

Ildo horretan, ordaindutako opor batean mediku batek langilea lan geldialdian ematen baldin badu, bere opor ordainduak bertan behera geldituko dira gaixorik dagoen bitartean langileak ez duelako atsedetik hartzen. Gaixorik dagoenean, sendatu egiten da. Beraz, Europar Batasuneko zuzenbideak dion bezala, langilea mediku batek lan geldialdian eman baldin badu, nagusiak, ordaindutako oporrak atzeratzeko aukera eman behar dio. (EJA, 2012ko ekainaren 21a, 78/11 auzia).

Erabaki horiek atzeraeraginezkoak dira, eta legezko nahiz hitzarmenezko ordaindutako oporrei aplikatuko zaizkie.

Argi uzten dizut jurisprudentzia horiek LANGILE GUZTIEI aplikatzen zaizkiela, bai langile publikoei, bai pribatuei.

Nire egoera ikusita, ordaindutako opor-eskubideen erregularizazioa eskatzera heldu natzaizu.

Izan ere, (esplikatu zure egoera: geldialdi datak, atzeratu gabeko oporrak)

Horregatik, eskatzen dizut ordaindutako opor-eskubideen erregularizazioa, eta, horrela, hartu ahal izan ditzadan (erregularizazio-modalitateak berreskuratu beharreko oporren izaeraren eta iraupenaren araberakoak izango dira, eta enpresan erabilgarri dauden tresnen araberakoak).

Ahalik eta lasterren erantzunen duzulakoan, nere eskubideak berreskuratu ditzadan.

Gizalegezko formula.

Sinadura
Izen Abizena

Elementuak :

Aipatutako aldiei dagozkien paga fitxak